



Arartekoaren 2023R-1952-21 EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 26koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zaio berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzeko ebazpena, eta, ondorioz, ofizioz berrabiarazi dezala, hasierako etenduraren arrazoiak bertan behera geratu direlako. Era berean, gomendatzen du ezar daitezela tratu-berdintasunerako eta bereizkeriarik ezerako eskubidearen errespetua kontrolatzeko ikuskapenerako barne-mekanismoak.

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa bat egin du Arartekoan, eta haren muina da diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) prestazioa azkendu egin diotela.

Kexagilea ijito-etnikoa da; eta bizikidetz-unitate bat osatzen du senarrarekin, 5 seme-alabarekin eta biloba batekin batera.

Lanbidek DSBE prestazioa azkentzea erabaki zuen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2021eko apirilaren 24ko Ebazpenaren bidez, honako arrazoi hau oinarri hartuta "18/2008 Legearen 28.1.e artikuluan ezarritakoaren arabera: Prestazioaren indarraldian (bi urtez) betebeharrak ez betetzeagatik bi aldiz eten izana". Arrazoi horrengatik DSBEa azkentzearen ondorioz, ezin izan da berriro DSBEa eskatu azkentze-datatik urtebetez.

Era berean, EPOa azkentzea erabaki zuen, urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren 29 b) artikuluan ezarritakoa aplikatuz. Horren arabera: "Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria jasotzeko eskubidea honako arrazoi hauengatik azkendu egingo da: (...) Prestazio horrek osatzen duen Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko eskubidea azkentzea, edozein izanik ere errenta horren modalitatea."

Kexagileari eteteko hasierako ebazpena eman zitzaion (2020ko abuztuaren 22ko Ebazpena), maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren (147/2010 Dekretua) 12.1 i) artikulua oinarri hartuta, Administrazioaren aurrean ez agertzeagatik eta harekin lankidetzan ez aritzeagatik horretarako eskatzen zaionean; zehazki, eskatu zitzaion dokumentazioa ezarritako epean ez aurkezteagatik: ostatu-ziurtagiria eta alokairu-errentaren ordainketaren justifikazioa. Era berean, EPOa etetea erabaki zen aurretik DSBEa eten zelako eta ez zelako bete 147/2010 Dekretuaren 12 1. i) aipaturiko artikuluan ezarritako betebeharra, hau da, DSBEa etetearen arrazoi berberengatik.

DSBEa jasotzeko eskubidea eten ondoren, kexagileak DSBE/EPOa berriro jasotzeko eskatu zuen bere gizarte-langilearen laguntzarekin. Berriz jasotzeko eskaera izapidetzean, 2020ko urriaren 23an, Lanbidek dokumentazio-errekerimendu bat bidali zion; honako dokumentu hauek aurkezteko eskatu zion:





- Alokairu-kontratua edo dagokion modalitatea eta etxebizitzaren errolda kolektiboa.
- Haien ardurapean dauden adingabeak eskolatzea eta eskolara benetan joango direla bermatzea.
- Eskaera aurkezten den unean eta aurretiko 3 urteetan erroldan izena emanda zegoela eta bertan benetan bizi zela egiaztatzea.
- Etxebiden inskribatzeko eskaera egin izana.

Horrez gain, Euskal Enplegu Zerbitzuak, bidalitako errekerimenduan, haren titularizaeratik eratorritako betebeharrak betetzeko betebeharra aipatu zuen eta, zehazki, titularra zein bere bizikidetz-unitateko kideak lanerako prest egotea; baina ez da ez-betetzetik zehazten, eta ez da adierazten bizikidetz-unitateko kideren bat lan egiteko prest ez zegoen.

Entzunaldi-izapideari erantzunez, kexagileak idazki bat aurkeztu zuen bizi zen udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuen laguntzarekin.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen txostenak azaltzen zuen kexagileak alokairu-kontratu bat zuela, baina ezin zuela egiaztatu errenta ordaindu izana, etxebizitzaren jabeak ez zituelako nahi jasota utzi alokairu-ordainketak eta etxebizitzaren mantentze-lanen gastuen ordainketak.

Gainera, adierazten zuen familia etxetik bidali zutela, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak babes publikoko etxebizitza esleitu zien arte, zailtasun larriak izan zituztela bizitoki egonkor bat aurkitzeko; eta horrek zaildu egin zuela erroldatzeko eta benetan bizitzeko baldintzak betetzea.

Gizarte-zerbitzuek jakinarazi zuten, gainera, familiaren seme-alabetako bat hil egin zela eta ama saminduta zegoela gertakari tamalgarri hori zela eta.

Eskolatzeari dagokionez, txostenak COVID-19aren pandemiaren ondorioz izandako zailtasunak eta eskolak euskaraz emateak dakartzan zailtasunak aipatzen zituen; bai eta bazterketa-arazoak, *bullyinga* eta osasun arazoak ere.

Etxebideko izen-emateari dagokionez, 2019ko irailaren 5etik dago jasota izen-ematea. Izan ere, adierazi den bezala, familia etxebizitza baten esleipendun izan da, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 11.2 f) artikulua eta babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12.3 artikulua aplikatuz ezarritako ezohiko prozeduraren bidez (dekretu hori abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenak aldatu zuen).

Egindako alegazioak gorabehera, Lanbidek, 2021eko urtarrilaren 21eko Ebazpenaren bidez, erabaki zuen DSBE prestazioa jasotzeko eskubidea ez berrezartzea eta etenaldiari eustea, honako arrazoi hauengatik:





- Ez egotea izena emanda enplegu-eskatzailer gisa, titularra, ezkontide edo ezkontidearen antzeko harremana duena, ez dago salbuetsita, 147/2010 Dekretuaren 12.2.b) artikulua.
- Ez betetzea eroldaren eta benetako bizilekuaren baldintza, 18/2008 Legearen 16 b) artikulua eta 147/2010 Dekretuaren 9.2 artikulua.

DSBEa jasotzeko eskubidea azkentzea ekarri zuen espedientea berrikusi aurretik, DSBEa ere ukatu zitzaion kexagileari. Aukerako berraztertzeke errekurtsua jarri ondoren, 2020ko urtarrilaren 2an, Lanbideko zuzendari nagusiak errekurtsua baiesteko ebazpena eman zuen. Errekurtsua baietsi ondoren, haren bizilekuari dagokion Lanbideren bulegoak berrikuspen-espediente bati hasiera eman zion; eta, horren ondorioz, hasieran DSBEa eten egin zen, eta, ondoren, azkendu egin zen, 2021eko apirilean.

2. Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta ondoren, adierazitako egitateei buruzko informazioa eskatu zion Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari. Horrez gain, alde zuzenetik aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion. Errepikakorrek ez izatearren, gero aipatuko ditugu.

Zehazki, honako kontu hauen inguruko informazioa eskatu zuen:

- a) Zergatik erabaki den iraungitzea prestazioaren indarraldian bi etete gertatu direla argudiatuta, berez, erakunde honek daukan informazioaren arabera, etete bat eta etetea mantentzeko ebazpen bat (ez betetzeagatik berrabiarazteko baldintzak) bakarrik eman badira.
- b) Zergatik erabaki zen diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea 2020ko abuztuaren 22ko Ebazpenaren bidez ez zelako aurkeztu bizi ziren etxebizitzari zegokion dokumentazio jakin bat.
- c) Zergatik aurreikusten den dirusarrerak bermatzeko errenta jasotzeko ezintasuna urtebete eta 8 hilabete igaro badira prestazioaren ordainketa eten zenetik, araudian urtebeteko aldia bakarrik ezartzen denean.
- d) Kexagileari behar bezala erantzuteko egindako edo egin beharreko jarduketei buruzko azalpena.

3. Lanbidek Arartekoari erantzun zion bizikidetzaren unitatea zehaztu eta EPOa kobratzeko beharrezkoa dela erregistratutako alokairu-kontratua edo gela-kontratua aurkeztea, baita ordainagiriak ere (147/2020 Dekretuaren 8.2 artikulua aplikatuz). Era berean, azaldu zuen kexagilea ez zela joan 2019/01/28, 2019/04/02 eta 2020/10/13ko hitzorduetara. Txostenak dioenez, semea 2020. urtearen hasieran hil zen; eta hori ezin da erabili kexagilea behin eta berriz agertu ez izana justifikatzeko, gertaera tamalgarri horretatik urrun dauden egunetan izanda. Azkenik, adierazten du DSBEa jasotzeko eskubidea 2019ko urtarrilean hasi zela.

Gaineratzen du ez direla bete honako betebeharrak hauek:

- o Adingabeen eskolatzea, 147/2010 Dekretuaren 12.d artikulua.





- Errolda eta benetako bizilekua, 147/2010 Dekretuaren 8.2. artikulua.
- Etxebideko inskripzioa SD2-06449, bajaren data 2020-09-09, 2/2010 Dekretuaren 5.1 c) artikulua.
- Enplegu-eskatzaile moduan inskribatuta jarraitzea. 2020-12-14an eskaeraren baja erabaki zen ez zelako berriru. 147/2010 Dekretuaren 12.2 b) artikulua.

Azkenik, honako hau adierazten du: “Ebazpena 2020/08/22ko datarekin dago, eta aipatzen dituen arrazoiak 2020/10/29koak dira (gizarte-langilearen txostena)”.

4. Espedientean, datu interesgarri gisa aipatzen da kexagilearen alabak bizikidetz-unitate berezi gisa eskatu zuela DSBEa, seme bat bere kargura zuelako. Lanbidek DSBEa ukatzea erabaki zuen, bere amaren DSBEaren espedientea dagoeneko azkenduta zegoelako.

5. Azkenik, 2022ko maiatzean, Lanbidek DSBEa jasotzeko eskubidea aitortu zion kexagileari, alabarekin batera osatutako bizikidetz-unitate berezi gisa, DSBEa azkentzeko ebazpena eman zenetik urtebete igaro ondoren.

Gogoetak

Lehenengoa. Arartekoaren ebazpen honen xedea da Lanbidek kexagilearen DSBE prestazioa azkentzeko emandako ebazpena aztertzea, prestazioaren bi urteko indarraldian betebeharrak ez betetzearen ondoriozko bi etenaldi daudelako. Espediente honi aplikatu beharreko araudia DSBE/EPOa azkentzea ebazteko unean indarrean dagoena da: 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa (18/2008 Legea) eta azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bidez aldatua (4/2011 Legea).

Lanbidek prestazioaren lehenengo etendura 2020ko abuztuaren 22ko Ebazpenaren bidez erabaki zuen.

Interesgarria da nabarmentzea eteteko ebazpenaren oinarri juridikoa 147/2010 Dekretuaren 12.1 i) artikulua zela, Administrazioaren aurrean ez agertzeagatik eta ezarritako epean ostatu-ziurtagiriari eta alokairu-errentaren ordainagiriari buruzko dokumentazioa ez aurkezteagatik.

DSBEa jasotzeko eskubidea eteteko ebazpenak ez zuen beste arrazoirik jasotzen. Bestalde, EPOa eteteko ebazpena arrazoi berberetan oinarritzen zen. Arartekoari emandako erantzunean, Lanbidek azaldu du etxebizitzari buruzko dokumentazioa aurkeztu ez izanaren ondorioz DSBEa eten izanaren arrazoia bizikidetz-unitatearen osaera zehazteko ezintasuna izan zela. Hala ere, Arartekoak ikusi du 8 kideko familia dela, eta erroldan izena emanda zeuden etxebizitza batean bizi zirela. Bizikidetz-unitatearen osaera argia zen.

Kexagileak utzarazpen-prozedura bat izan zuen 2021. urtean. 2019an DSBE eta EPO prestazioak eskatu zituen, baina hasiera batean ukatu egin ziren; nahiz eta





ukatzeko ebazpenaren aurka jarritako aukerako berraztertze-errekurtsoa baietsi ondoren, prestazio horiek aitortu egin zitzaizkion. 2019an DSBEa eta EPOa ukatu izanak ez zuen lagundu etxebizitzan egoten, ezta alokairua ordaintzen ere; eta horrek, azkenean, eskatutako dokumentazioa aurkeztea eragotzi zuen.

2020ko urtarrilean DSBEaren hasierako ukapena ezeztatu ondoren, Lanbideren bulegoak 2020ko otsailean berrikuspen-prozedura bat hasi zuen; eta horren ondorioz, 2020ko abuztuan DSBE/EPOa jasotzeko eskubidea eten zen 147/2020 Dekretuaren 12.1 i) artikulua araberan, Administrazioaren aurrean ez agertzeagatik eta harekin lankidetzan ez aritzeagatik, horretarako eskatzen zaionean (zehazki, ostatu-ziurtagiria eta alokairuaren justifikazioa aurkeztu ez izanagatik).

Bigarrena. Berriz hasteko eskaera izapidetzean, Lanbidek dokumentazio jakin bat aurkezteko eskatu zuen. Udaleko gizarte-zerbitzuek lagundu egin zioten kexagileari entzunaldiaren izapidean erantzuna ematen. Erakunde honek egindako informazio-eskaerari erantzunez, Lanbidek aipatzen du gizarte-zerbitzuen txostena hasierako etete-ebazpenaren ondoren aurkeztu zela. Arartekoak egiaztatu ahal izan du, hain zuzen ere, txosten hori berriz hasteko eskaerarekin batera aurkeztu zela.

Txosten horrek etxebizitzari buruzko dokumentazioa aurkezteko zailtasunak azaltzen zituen, bai eta errolatzeari eta benetako bizilekuari buruzkoak edo eskolatzeari buruzkoak aurkezteko zailtasunak ere. Gainera, Lanbideri jakinarazi zion kexagilea etxebizitza baten onuradun izan zela ezohiko esleipen-prozeduraren bidez, eta, beraz, Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuari zegozkion betebeharrak betetzen zituela.

Hala eta guztiz ere, Lanbidek DSBE prestazioari berriro ez ekitea erabaki zuen, eta DSBErako eskubidea eteteari eustea erabaki zuen. Erabaki horren arrazoia izan zen titularra, ezkontidea edo antzeko harremana duenen bat enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egoteko betebeharra ez betetzea, eta ez daude betebeharrak horretatik salbuetsita, 147/2010 Dekretuaren 12.2 b) artikuluan xedatutakoaren arabera; bai eta errolatzeko eta benetan bizitzeko baldintzak ez betetzea ere, 18/2008 Legearen 16 b) artikuluan eta 147/2010 Dekretuaren 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpenak ez zituen jasotzen, ez berrezartzeko arrazoiaren artean, eskolatzeari edo Etxebiden izena emateari buruzkoak; baina Arartekoari emandako erantzunean, Lanbidek berriro azpimarratu ditu ez-betetze horiek, prestazioak berriz ez hasteko erabakia justifikatzeko.

Lanbidek Arartekoari azaldu dionez, DSBEaren titularra ez zen hiru hitzordutara joan (2019/01/28, 2019/04/02 eta 2020/10/13), eta semea 2020. urtearen hasieran hil zen; beraz, ezin dira justifikatu ez agertze horiek. Hala ere, 2019an kexagilea ez zen DSBEaren titularra izan, DSBEa ukatu egin zitzaioke. Ondorioz, 2019ko lehen bi hitzorduei dagokienez, ez zegoen DSBEaren titular gisa zituen betebeharren mende. 2020/10/13koari dagokienez, egia da kexagilea DSBEaren





titularra zela data horretan, nahiz eta une jakin horretan prestazioa etenda egon (2020ko abuztuaren 22ko Ebazpenaren bidez). Era berean, erantzun-txostenean, Lanbidek eskolatu eta Etxebiden izena eman ez izana aipatzen ditu etendura justifikatzen duten arrazoi gisa, berrabiaraztea ukatu aurreko errekerimenduan ere adierazi zuen bezala.

Arartekoak ikusi du 2021eko urtarrilaren 21eko ukatzeko ebazpena **enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egoteko betebeharra ez betetzean eta erroldatzearen eta benetako bizilekuaren betekizunari dagokion ez-betetzean** soilik oinarritzen dela.

Arartekoaren iritziz, enplegu-eskaera ez berritzea eta bizileku zuten etxebizitzari buruzko dokumentazioa ez aurkeztea legezko arrazoiak dira DSBE/EPO prestazioari berriz ez ekitea erabakitzeko, 147/2010 Dekretuaren 9. eta 13. artikuluen arabera. Ondorioz, DSBEa berriz ez hasteko 2021eko urtarrilaren 21eko ebazpena legeak ezarritako arrazoietan oinarritu zen.

Hala ere, Arartekoaren iritziz, ez zegoen azkentzea erabakitzeko alde aurreko arrazoirik. Hain zuzen ere, DSBE prestazioa berriz ez hasteko ebazpena ezin da etete-ebazpen batekin parekatu, ondoren azalduko den bezala, aplikatu beharreko araudian oinarrituta.

Hirugarrena. Lanbidek DSBErako eskubidea azkentzea erabaki zuen, 18/2008 Legearen (4/2011 Legeak emandako idazketan) 28.1 e) artikulua aipatuz, hau da, prestazioaren indarraldiko bi urteko aldian betebeharrak ez betetzeagatik alde aurretik bi etenaldi egon zirelako. Hala ere, aipatutako azkentze-arrazoiak ez zuen funtsik aztertutako kasuan, inoiz ez baitziren aurretik bi etenaldi egon. Lege-agindua ezin zen aplikatu, ez baitziren alde aurretik bi etenaldi egon, baizik eta bakarra; izan ere, ezin da pentsatu berriz ez hasteko erabaki bat etete baten baliokidea denik. Bestela esanda, indarrean dagoen etete bat mantentzea ezin da parekatu DSBEa eteteko beste ebazpen batekin. Lanbidek, beste kexa-espeditente batzuetan, hala baloratu du, eta bat etorri da Arartekoaren iritziarekin; izan ere, uste du mota bateko eta besteko ebazpenak ez direla berdinak, ezta parekagarriak ere.

Ez 18/2008 Legeak, ez 147/2010 Dekretuak, ez dute ezartzen zer ondorio dituen etendako prestazio bati berriro ez ekiteko ebazpen batek. Ondorio horiek 18/2008 Legearen (4/2011 Legeak emandako idazketan) 28 1 e) artikulutik ondorioztatzen dira. Artikulu horrek, DSBEa azkentzeko arrazoiak arautzean, hamabi hilabetetik gorako aldi jarraituan etete-egoera bati eustea ezartzen du.

Ez zen espeditente honen kasua izan; izan ere, Lanbidek 2020ko abuztuan ebatzi zuen etetea erabakitzea. Jarraian, 2021eko urtarrilean ebatzi zuen berriro hastea ukatzea eta eteteari eustea. Azkenik, 2021eko otsailean, azkentzeko prozedura hasi zuen, hau da, etetea erabaki eta 6 hilabetera. Arartekoaren iritziz, kexagileak, bere bizilekua esleitu zitzaion etxebizitzara aldatu ondoren eta enplegu-eskatzaille gisa alta eman ondoren, berriz ere eska zezakeen DSBEa berriz jasotzeko,





147/2010 Dekretuaren 46. artikulua aplikatuz; orduan geratu baitziren bertan behera DSBEa jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak, prestazioa azkentzeko arrazoi gisa aurreikusitako hamabi hilabeteko etenaldia igaro ez zelako. Lanbidek ere ofizioz berrabiaraztea erabaki zezakeen, 147/2010 Dekretuaren aipaturiko 46. artikulua aplikatuz, etxebizitzaren esleipenaren berri izan eta DSBEaren onuradun izateko baldintzak betetzen zituela egiaztatu ondoren.

Hala ere, Lanbidek eteteko bi arrazoi zeudela uste zuela-eta erabaki zuen azkentzea. Kide guztiak etxebizitza berrira lekualdatu ondoren, ukatu egin zuen kexagilearen alabaren eskaera ere (bizikidetzaren unitate berezi bat osatzen zuen bere haurrarekin batera), eta, hala, bizikidetzaren unitateko kide guztiei zabaldu zitzaizkien azkentzearen ondorioak.

Laugarrena. Are gehiago, prestazioa azkentzeko ebazpenaren legeko oinarria 18/2008 Legearen (4/2011 Legeak emandako idazketan) 28 1 e) artikulua izan zen. Xedapen horrek azkentzeko arrazoitzat ezartzen du prestazioaren indarraldian betebeharrak ez betetzeagatik bi etenaldi egotea. Azkentzeko arrazoi horren ondorioz, ezin da DSBEaren onuradun izan urtebetean, azkentze-datatik zenbatzen hasita (18/2008 Legearen 28.3 artikulua, une hartan indarrean zegoen 4/2011 Legeak emandako idazketan).

DSBEa jasotzeko eskubidea etetea eta DSBE prestazioaren ordainketa etetea 2020ko abuztuan erabaki zen; beraz, Lanbidek DSBEa azkentzea ebatzi zuenean 2021eko apirilean, 8 hilabete igaro ziren prestazioaren ordainketa eten zenetik. DSBEa jasotzeko eskubidea azkentzea erabaki zuen ebazpenak berariaz adierazten du 2021eko apirilaren 1etik aurrera izan zituela ondorioak. Prestazioaren ordainketaren etenaldiak, beraz, urtebete eta 8 hilabete iraun zuen.

Lanbideri aurretik egindako gogoetetan, Arartekoak dagoeneko agerian utzi zuen desproporzioa eta segurtasunik eza zenbatzearen hasiera-datatzat azkentzeko ebazpenaren data hartu zelako; izan ere, baliteke prestazioaren ordainketa lehenago etenda egotea, jokabidearen balio-galerarekin zerikusirik ez zuten faktoreen mende zegoen aldi baterako.

Arartekoaren iritziz, urtearen zenbaketa prestazioaren ordainketa eteten denetik hasi beharko litzateke. Azkentzea adosten den urtearen arabera, prestazioaren ordainketaren eteteak iraupen luzeagoa edo laburragoa du; hortaz, ez dago kasu guztietarako antzekoak diren faktore objektiboak erantzuten dien irizpiderik. Hala, prestazioaren ordainketaren etenaldiaren iraupena espedienteen kudeaketako denbora eta izapideekin zerikusia duten faktoreen arabera da, eta, ondorioz, horiek ez datoz bat bizikidetzaren unitateko kideen jokabidearekin.

Azkentzearen ondorioak, kasu jakin batzuetan, legeak ezarritako urtetik harago egongo dira azkentzeko arrazoi hori dagoenean; eta ez dago legeko arrazoirik espediente batzuetan prestazioaren ordainketaren etendurak beste batzuetan ez bezalako iraupena izateko. Gainera, Arartekoak adierazi zuen erakunde horrek izapidetutako beste kexa-espediente batzuetan Lanbidek kontuan hartu zuela





Arartekoak adierazitako irizpidea, hau da, azkentze-urtearen hasiera-datatzat prestazioen ordainketa benetan eteten den data hartzekoa.

Egia esan, espediente honetan, bizikidetz-unitatea ez zen berriro prestazioaren onuradun izan, harik eta urtebete eta 8 hilabete igaro ziren arte DSBEaren ordainketa eten zenetik.

Era berean, espediente honetan, azkentzeak eragotzi egin zuen kexagilearen alabari DSBEa ematea; bost hilabeteko haurtxo batekin bizikidetz-unitate berezi bat osatzen zuen. Lanbidek DSBEaren eskaera ukatu zuen 2021eko uztailaren 30eko Ebazpenaren bidez, 18/2008 Legearen (4/2011 Legeak emandako idazketan) 28.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuta, eskatzailea DSBEa azkendu zitzaion bizikidetz-unitate bateko kide zelako eta, beraz, hurrengo urtean ezin zuelako DSBEa eskatu. Erabaki hori dela-eta Arartekoaren beste ebazpen bat aurkeztu da: **Arartekoaren 2023R-2073-21 EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 26koa.**

Bosgarrena. DSBEa jasotzeko ezintasunak seme-alaba adingabeak dituen familia bati eragin dio. Ondorioz, erakunde honek berriro azpimarratuko du nahitaezkoa dela administrazio publikoek adingabeen interes goren aintzat hartzea, hurrei eragin diezaieketen erabakiak hartu behar dituztenean. Hala adierazi zuen Arartekoak "Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemak"¹ buruzko 2/2015 Gomendio Orokorrean. Gomendio horrek, laburbilduz, adierazten du erakunde honen ustez aintzat hartu behar dela, eta egoki neurtu, bizikidetz-unitatea diru-sarrerarik gabe utziko duen erabaki administratibo batek haurren bizitzan zer ondorio izan ditzakeen, prestazioak eten edota azkentzeko ebazpena eman aurretik.

lido horretan, gogorarazi behar da Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak, 1989ko azaroaren 20koak, ezartzen duela 3. artikuluan adingabeen interes gorenaren printzipio eta eskubide hori. Arartekoak Haurren Eskubideen Batzordearen² 14. Ohar Orokorren berri eman du. Ohar hori hurrek duten interes goren funtsezko kontsiderazioa izan dadin duten eskubideari buruzkoa da³. Ohar horren IV.A.1.b) puntuan argitzen duenez, interes gorenaren printzipioa errespetatzea eska daiteke hurrei zeharka eragiten dieten erabakietan; hau da, ez bakarrik haiei zuzendutako administrazio-egintzetan, baita ondorioak izan ditzaketen egintzetan ere, nahiz eta zuzeneko hartzaileak ez izan.

Ohar Orokor hori kontuan hartu da urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa aldatzeko, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko

¹ **Euskadi. Arartekoak.** Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorra, apirilaren 8koa. Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemak [**Online eskuragarri**]. Hemen eskuragarri: <https://www.ararteko.eus/eu/arartekoaren-2015-gomendio-orokorra-apirilaren-8koa-0>

² Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu duten estatuek betetzen ote duten jarraitzeaz eta ezarri behar den eremuetan behar bezala interpretatzeko orientabideak emateaz arduratzen den organoa.

³ **Nazio Batuak.** Haurren eskubideei buruzko hitzarmena. Haurren Eskubideen Batzordea. 14. Ohar Orokorra (2013), zeinak ezartzen duen haurrak eskubidea duela bere interes goren lehentasunez kontuan hartua izan dadin (3. artikulua, 1. paragrafoa). [**Online eskuragarri**]: http://www2.ohchr.org/English/bodies/crc/docs/GC/CRC.C.GC.14_sp.pdf



8/2015 Lege Organikoak emandako idazketan, eta Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 2. eta 3. artikuluen idazketan txertatu da. Artikulu horiek adingabearen interes gorena garatzen dute, eta aplikatzeko jarraibideak ematen dituzte. Ildo horretan, 3. artikulua berriaz ezartzen du botere publikoen jarduketa nazioarteko araudi horretara egokitu behar dela. Eta, bestalde, Konstituzio Auzitegiaren arabera, oinarriko eskubideen interpretazioak, giza eskubideei buruzko itunei jarraikiz, “ezin du alde batera utzi nazioarteko itun eta akordio horiek ezarritako berme-organoek egiten duten interpretazioa”⁴.

Seigarrena. Azkenik, ebazpen honek historikoki diskriminatuta egon den kolektibo bati eragiten dio, hau da, ijitoei. Arartekoaren iritziz, erabakitako ebazpenek gehiago hartu behar zituzten kontuan kolektibo horretako kide batzuek pairatzen dituzten eta izan duten sufrimendu eta jazarpen historikoagatik azaltzen diren kalteberatasun eta gizarte-bazterketako inguruabar bereziak.

Diskriminazioaren aurkako esparru juridiko babeslera jo beharrik gabe, espedientean agerian geratu baita DSBEa azkentzeko erabakiaren arau-babesik eza, neurrigabeko ondorioak izan dituen eta adingabeak ardurapean dituen familia bati eragin diona, Arartekoak ohartarazi nahi du beharrezkoa dela barne ikuskapen-mekanismoak ezartzea tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea betetzeko, batez ere honako hau indarrean jarri zenetik: [Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako 15/2022 Lege Integrala, uztailaren 12koa](#). Lege horrek tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako eskubidea aitortzen dio pertsona orori, eta sektore publiko eta pribatuetan zuzeneko edo zeharkako bereizkeria mota oro prebenitzeko neurriak aurreikusten ditu. Horren arabera, DSBEaren eta, hala badagokio, EPOaren espedienteak izapidetzean detektatzeko eta gainbegiratzeko barne-mekanismoak aurreikus litezke.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera

GOMENDIOA

Aurreko gogoetetan oinarrituta, berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea azkentzeko ebazpena, kexagileak ez baitu azkentzeko arrazoirik izan, ezin baita prestazioa eteteko beste ebazpen batekin parekatu prestazioa berriz hastea ukatzen duen ebazpena.

⁴ Ikusi, zentzu horretan, honako hau: Konstituzio Auzitegia (bigarren sala). 87/2019 Epaia, maiatzaren 8koa, bigarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TC:1989:81. Hemen eskuragarri: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/1287>; eta Konstituzio Auzitegia (lehenengo sala). 116/2006 Epaia, apirilaren 24koa, bosgarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TC:2006:116. Hemen eskuragarri: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/5718>



Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kontuan har dezala tratu-berdintasunerako eta bereizkeriarik ezerako eskubidearen errespetua eraginkortasunez kontrolatzeko ikuskapenerako barne-mekanismoren bat ezartzeko aukera.

